



Aurrera, batera!

Araba

Mira al futuro

/ PROGRAMA 2023-2027 /

Arabako
Batzar
Nagusiak

Juntas
Generales
de Álava



eaj-pnv.eus



«Harro nago arabarrek azken urteotan lortu dugunaz. Elkarrekin lan egiten jarraitzeko konpromisoa hartzen dut, Araba bizi-maila handiko lurraldea izan dadin, guztiontzako aukerekin. Araban sinesten dudalako. Bere etorkizunean sinesten dudalako. Lana, esfortzua eta ilusioa».



ARABAKO
BATZAR
NAGUSIAK /
Programa

Azken lau urte hauek zailak izan dira. Pandemiak goitik behera baldintzatu zituen gure bizitzak. Gainditu genuela zirudienean, Ukrainaren inbasioak ziurgabetasun handia eragin zuen mundu osoan, eta enpresen eta pertsonen ekonomian ondorioak izan zituen.

Zailtasun horiei gogortasunez aurre egin diegu, eta garrantzizkoaz, benetako arazoez, arabar bakoitzari eragiten dioten arazoez arduratu gara.

Gure lurraldeko egonkortasun politikoa bilatu dut akordioaren eta lankidetzaren bidez, auzolana eginez.

Lan horrek, konfrontaziotik urrun eta askotan isilik eta zuhur, emaitza eman du.

Azken lau urteotan proiektu eta inbertsio oso garrantzitsuak lortu dira Arabaren etorkizunerako. Industrian egindako inbertsioek jauzi kualitatiboa suposatuko dute ekonomia berritzaileago eta dibertsifikatuago baterantz, eta horrek kalitatezko enplegu gehiago eta bizi-kalitate handiagoa ekarriko du.

Araba inoiz baino lehiakorragoa eta erakargarriagoa da gaur egun.

Azken lau urte hauetan, gure zainketa-politikak hobetzen jarraitu dugu. Horretarako, gure gizarte-baliabideetan plaza gehiago sortu ditugu, adinekoen egoitzak gizatiarragoak egin ditugu eta zainketetan inoiz baino gehiago inbertitu dugu.

Urratsak eman ditugu klima-aldaketaren aurkako borrokan. Karbonoa kentzea eta energia berriztagarria sortzea bultzatu dugu.

Beraz, asko aurreratu dugu. Hori elkarrekin lan egiten lortu dugu.

Baina oraindik asko dago egiteko.

Arabaren eta bere etorkizunean sinesten dut. Bizi-maila handiko lurralde batean sinesten dut, sozialki kohesionatua eta guztiei aukerak eskaintzen dizkiena.

Harro nago arabarrok lortu dugunaz, eta orain arte egin dudana bezala lanean jarraitzeko konpromisoa hartzen dut: egonkortasun politikoa bilatuko dut eta akordioaren eta lankidetzaren bidez lan egingo dut, Arabak guztion artean eraiki behar dugun etorkizun handia duela sinesten baitut.

RAMIRO GONZÁLEZ

/ EAJ-PNVren Arabako Ahdun Nagusirako hautagaia /



ARABAKO
BATZAR
NAGUSIAK /

Programa

DEKALOGOIA

HELBURUAK

LEGE GINTZA PROGRAMA



DEKALOGOIA



EAJ-PNV, EKINTZA eta TOKIKO balioa sustatzen duen alderdia.

1 /

TOKIKO POLITIKAREN BALIO ESTRATEGIKOAN SINESTEN DUGU.

Gure tokiko politikaren eredua hiru zutabetan oinarritzen da:

- Pertsonetikiko **hurbiltasuna eta lotura** (errealitate soziala), enpatiatik eta entzute aktibotik. Pertsonak dira tokiko ekintzaren erdigunea, baita tokiko ekintzaren konplize ere.
- Sortutako **balio publikoa**: eragin sozialak eta ekonomikoak. Tokiko ekintzak «zubiak» eraikitzen ditu herrialdeko erronka handiei erantzuteko, helburu argietatik abiatuta, konponbide bideragarri eta handinahiekin.
- **Eraldaketa soziala**. Elkarlaneko gobernantzaren alde egiten dugu onura kolektiboa lortzeko, guztion ongia. Erakundeen arteko politikak eta programak, arloen eta sektoreen artekoak, herritarrekin lankidetzan, eta eragile publiko eta pribatu ugarirekin.

2 /

GURE ERAKUNDEEK EUSKADIREN GARAPEN SOZIAL ETA EKONOMIKO JASANGARRIAN DUTEN FUNTSEZKO ZEREGINEAN SINESTEN DUGU.

Jasangarritasunarekin (soziala, ekonomikoa, ingurumenekoa) dugun konpromisotik abiatuta, garapen jasangarrirako eredu inklusibo eta bidezko baten alde egiten dugu. 2030 Agenda asmo eta tresna da guretzat. Arabak erreakzio global eta lokala pizten jarraituko du, 2030era arte geratzen diren urteetan GJHen garapena eta betetzea bultzatzeko.

Garapen Jasangarrirako Helburuak aktibatuzko, pertsonen bizitzan eragina izateko eta inor atzean ez uzteko lekuri onena udalerrriak eta lurraldeak dira.



ARABAKO
BATZAR
NAGUSIAK /

Programa

3 /

ERAKUNDEEN ETA HERRITARREN ARTEKO HARREMAN-EREDU BERRI BATEAN SINESTEN DUGU, KOMUNITATEA EGITEKO ETA KONFIANTZA SORTZEKO.

COVID-19aren pandemiak eta ondorengo krisiek aurrekaririk gabeko egoerak sortu dituzte, eta elkarlanetik eta koordinaziotik egin diegu aurre, gizarte gisa.

Aldundiek funtsezko eginkizun aktiboa dute komunitatea egiteko eta erronka globalei aurre egiteko. Eta kidego-sentimendua eta herri gisa dugun nortasuna indartzen dute, gure hizkuntzaren (euskara), gure tradizioen eta gure kulturaren bitartez, giza eskubideak ere defendatuz eta Europako balio komunak babestuz: berdintasuna, aniztasuna, elkartasuna, tolerantzia, bizikidetzaren demokratikoa eta abar.

4 /

GURE ERAKUNDEEK GIZARTE-KOHESIOA SORTZEKO ETA DESBERDINTASUNEI AURRE EGITEKO DUTEN GAITASUNEAN SINESTEN DUGU.

Berdintasunaren, emakumeen eta nesken aurkako indarkeriaren prebentzioaren, aniztasunaren kudeaketaren eta kulturen eta belaunaldien arteko bizikidetzaren arloetan aurrera egiten jarraitzeko lan egiten dugu.

5 /

KUDEAKETAREN GARRANTZIAN SINESTEN DUGU.

Uste dugu kudeaketak garrantzi handia duela ikuspegi estrategiko gisa eta epe luzerako. Egungo eta etorkizuneko erronkei heltzeko, gizartearen bilakaeraren ildotik. Horretarako, pertsona onenak ditugu, konprometituak, esperientzia eta ibilbide arrakastatsua dutenak.

6 /

GARDENTASUNEAN ETA PARTE-HARTZEAN SINESTEN DUGU. LURRALDE-ESPARRUA ESPAZIO EGOKIA DA POLITIKA ELKARRERAGILEAGOA GARATZEKO.

Herritarrekin eta hainbat eragilerekin batera, elkarrekin sortzeko espazioak sortzearen alde egiten dugu, zerbitzu eta politika publikoak azkar eraldatzen den gizartearen isla izan daitezen. Uste dugu tokikoa espazio egokia dela parte hartzeko eredu berriak sortzeko, herritar erantzunkideak eta kudeaketa publikoarekin konprometituak egoteko.



**ARABAKO
BATZAR
NAGUSIAK /**

Programa

7 /

ETIKAN SINESTEN DUGU ETA HORREN ARABERA JOKATZEN DUGU, GURE JARDUERAREN FUNTSEZKO PRINTZPIO GISA.

Konpromiso hori gure hautetsiei eta kudeaketa-taldeei ahalik eta gehien eskatzean oinarritzen da, eta lurraldeko eragile guztiei helarazi nahi diegu.

8 /

BERRIKUNTZAN ETA ALDAKETAREN KUDEAKETAN SINESTEN DUGU; TRANTSIZIO HIRUKOITZAK AURRERA EGITEKO INSPIRAZIO GISA: SOZIAL-DEMOGRAFIKOA, EKONOMIKO-DIGITALA, KLIMATIKO-ENERGETIKOA.

Berrikuntza publikoaren alde egiten dugu, aldaketei aurrea hartzeko eta etorkizuneko krisien aurrean ziurtasuna eta erresilientzia sortzeko tresna gisa.

Talentua eta ekintzailtza sortzearen eta elikatzearren alde egiten dugu. Berrikuntzak eragiteko gai diren pertsonak eta aukerak identifikatzea.

Administrazio **digitalago eta eskuragarriago** baten alde egin eta eten digitala saihesten dugu. Guretzat teknologia zerbitzuak pertsona guztiei hurbiltzeko tresna da, beren bizi-ingurunetik hurbilago.

Gure herri eta hirietan **energia berriztagarriak eta trantsizio energetikoa** sustatzearen alde egiten dugu.

Horrek guztiak **persona** jartzen du gure ekintzaren **erdigunean**.

9 /

LANKIDETZAREN ETA ELKARLANAREN BALIO ESTRATEGIKOAN SINESTEN DUGU.

Aldundietan sinesten dugu, gizarte-kohesioko eta erakundeen arteko kohesioko eragile gisa, elkartasun publiko-pribatuen bidez (enpresak, hirugarren sektorea, etab.).

10 /

UDALERRIEN INTERESEN ALDE EGIN ETA SINESTEN DUGU, ETA MAILA ANITZEKO LANKIDETZA SUSTATUKO DUGU UDAL ERAGINGARRIAGO ETA ERAGINKORRAGOEN ALDE.

Esperientzien eta jardunbide egokien trukea sortuko dugu, sinergiak bultzatuz; **abangoardian** egoteko, eta beste udal-errealitate batzuekin etengabeko harremanetan egoteko.



**ARABAKO
BATZAR
NAGUSIAK /**

Programa

HELBURUAK





Euzko Alderdi Jeltzaleak balioen dekalogo baten babespean kudeatzen ditu administrazioak. Gainera, herri bat tokiko ikuspuntutik eraikitzeko ikuspegitik egiten du, behetik gora, eta erakunde arteko lankidetzan nahiz publiko-pribatuan lan eginez. Era berean, kontuan hartzen du 2019-2023 legegintzaldian erronka eta eraldaketa berriei ekin zaiela, eta horiek amaitu egin behar direla. Horregatik, EAJ-PNVk bost helburutan oinarritutako gobernu-ekintza garatuko du, eta helburu horiek banakatu egingo ditugu:

1 / Gobernantza ireki eta demokratikoan sakontzea.

2 / Ekonomiaren eta industriaren eraldaketa gidatzea.

3 / Zaintza-politikan eta gizarte-kohesioan aurrera egitea.

4 / Klima-aldaketari aurre egitea.

5 / Lurralde-oreka sendotzea eta hobetzea.



**ARABAKO
BATZAR
NAGUSIAK /**

Programa

LEGEGINTZA PROGRAMA

5 HELBURU

50 KONPROMISO

370 EKINTZA

Konpromisoak eta ekintzak



1 /

GOBERNANTZA IREKI ETA DEMOKRATIKOAN SAKONTZEA.

Arabak herritartasun aktiboa eta politika partekatuak behar ditu. EAJ-PNVren bide-orria herritartasun aktiboan eta politika partekatuetan oinarritzen da. Bere helburua da erakunde gardenak, zorrotzak eta XXI. mendeko herritarren eskaerei erantzuteko gai direnak sendotzea.

Arabak lankidetzazko eta aurretiazko gobernantzarekin duen konpromisoa islatzen duten ekintzak ezartzen jarraituko du, eta herritarrak jarduera publikoaren, erabaki administratiboaren eta foru- eta udal-politiken xedearen gune bihurtuko dira.

Gardentasunari dagokionez, administrazioak bere ekintza proaktiboarekin jarraituko du, bere jardun-eremuei eta betebeharrei buruzko informazioa zehatz-mehatz ezagutarazteko, modu ulergarrian eta herritarren beharretara gehien egokitzen diren hedapen-tresnekin.

Eremu horretan, 1/2017 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunarena, herritarren parte-hartzearena eta gobernu onarena,



**ARABAKO
BATZAR
NAGUSIAK /**

Programa

ezartzen eta garatzen jarraitzea proposatzen da, administrazio guztietan estaldura osoa bermatzeko.

Informazio publikoa eta informazio hori eskuratzeko eskubidea gobernantza irekiaren eta elkarlanaren beste zutabeetako bat da. Horretarako, Arabak kanal berriak aktibatuko ditu, teknologia berrietan oinarrituak, eskuragarriagoak eta informazio publikoaren sarrerek eta eskaerak biderkatzeko aukera emango dutenak.

Hauek dira baliabide publikoen kudeaketa on baten bidez interes orokorrei eusten dien administrazioaren funtsezko printzipioak: eraginkortasuna, herstura, inpartzialtasuna eta, batez ere, erantzukizuna. Horretarako, kargu publikoen eta sektore publikoko ordezkarien Etika eta Gobernu Onaren Kodea indartuko da, eta bi kode berri aktibatuko dira: kontratazio publikoarena eta funtzionarioena.

Eta 2019/1937 (EB) Zuzentarauaren arabera, Europar Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesari buruzkoa, barne-salaketan kanala aktibatuko da, ustelkeriaren aurkako gardentasunean, zintzotasunean eta zero tolerantzian oinarritutako tresna.

Gainera, Arabako Administrazioak aldizkako kontu-emateak egiteko konpromisoa hartzen du: aurrekontu-kontroleko eta gobernu-ekintzako mekanismoa, administrazioari ekitaldi bakoitzeko diru-sarreraren, inbertsioen eta gastuen gainean zorrotz, eraginkortasunez eta gardentasunez jokatzeko aukera ematen diona.

Foru administrazioaren beste funtsezko alderdietako bat gobernu ireki baten alde lan egiten jarraitzea izango da, hau da, herritarrak erabaki publikoen erdigunean egongo diren Lurralde bat eraikitze modua. Gure ustez, herritarrek etengabe entzuten ari den administrazio bat behar dute, beren beharrei aurrea hartzen diena eta beren erabakiak tokiko, lurraldeko edo munduko une, leku eta testuinguru bakoitzeko egoeretara egokitzen dituen.

Halaber, Araban berrikuntza soziala ikusaraziko duten ekintzen alde egiten jarraituko dugu. Eta aurrekontu parte-hartzaileen edizio berriak deituko dira, Arabako herritarrek ongizate kolektiborako giltzarri diren ekintzak eta proiektuak proposatu, erabaki eta hautatzeko. Hori herritarren ahalduntze demokratikoko prozesuak aktibatze beste ariketa bat da. Hau da, Araba bidezidorrean eraikitzen jarraitze parte hartzea, ebaluatzea eta laguntzea.



ARABAKO
BATZAR
NAGUSIAK /

Programa

Konpromisoak eta ekintzak /

1/ Gardentasunari buruzko foru-araua garatzen jarraitzea.

- Gardentasunari buruzko foru-arauaren estaldura toki-administrazio guztietara orokortzea. 1/2017 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunarena, herritarren parte-hartzearena eta gobernu onarenak, estaldura onena eskaintzen du, toki-administrazioek ere informazioa eman dezaten haren antolaketari, funtzionamenduari, baliabide publikoen kudeaketari eta erabaki garrantzitsuak hartzeari buruz.

2/ Gobernu onerako bidean aurrera egitea.

- Kargu publikoen kode etikoaren kultura berrestea. Arabako Foru Aldundiak tresna eredugarri eta ereduzkoa du gobernagarritasuna eta ustelkeriaren borroka indartzeko.
- Kontratazio publikoan kode etikoa sortzea.
- Kargu publikoen kode etikoa, funtzionarioentzako kode espezifiko batekin osatzea.
- Salaketen barne-kanal bat aktibatzea. Arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteko Legea betetzeko, Arabako Foru Aldundiak berme osoz gauzatuko du barne-salaketarako kanal bat abian jartzea, jokabide irregularrez ohartarazteko edo informatzeko.
- Herritarrei aldizka kontuak emateko konpromisoa hartzea. Arabako Foru Aldundiak, bere borronteaz, herritarrei zuzenean emango die legegintzaldiko urteetan hartutako konpromisoen betetze-mailari buruzko informazioa. Emandako hitzaren balioa aldarrikatzean datza, foru gobernuaren ekintzaren eragile eta berme gisa.

3/ Gobernu irekian sakontzea.

- Herritarrekin informazio-kanal berriak garatzea. Aukera emango du foru administrazioak herritarrek azaldutako beharrak asetzeko bideak biderkatzeko, eta hori guztia modu pertsonalizatuan, berehala eta erraz.
- Araban gizarte-berrikuntza ikusaraztea. Gizarte-berrikuntzak, goranzko balioa izateaz gain, aberastasun kolektiboa sortzen du. FISA sarien bidez, Arabak erakusten jarraitu nahi du Gizarte Berrikuntzak gizartean eragina eta eraldaketa sortzeaz gain, erantzunak eskaintzen dituela, metodo berrietan, teknologia berrietan eta lankidetzeta-harremanetan oinarritutako esku-hartze sortzaileetatik abiatuta.
- Entzute aktiboko eta gobernantza aurreratuko eta lankidetzako prozesuak aktibatzea. Foru gobernu Arabako gizarteari irekitzeak eta bere kezka eta beharrei erantzuteak guztion lan partekatua eta kolaboratiboa eskatzen du, Araba Helburu edo Araba in Progress prozesuek erakutsi zuten bezala. Horregatik, foru-administrazioak gizartearen oinarritzko hiru alderdiak kontuan hartzen dituzten prozesuak abiarazten jarraituko du: administrazioa, herritarrak eta bikaintasun zientifikoa.



ARABAKO
BATZAR
NAGUSIAK /

Programa

- Aurrekontu parte-hartzaileen edizio berriak egitea. Aldundiak ahalduntze demokratikorako proposatu duen ekitaldi berri honetan, Arabako herritarrek proposatu, erabaki eta aukeratu behar dute zein ekintza eta proiektu diren funtsezkoak ongizate kolektiborako; izan ere, apustua argia da: parte hartzea, ebaluatzea eta laguntzea Araba eraikitzen jarraitzeko.

4 / Digitalizazioarekin jarraitzea, herritarrekiko harremana hobetzeko.

- Adimen artifiziala ezartzea kontsultei erantzuteko. Horrela, Aldundiaren webguneko txatbotarekin hasitako ekintza garatuko da beste kanal eta jokaeremu batzuetan, telefono bidezko herritarren arretaz gain.
- Herritarrentzako arreta hobetzea, sektore publikoaren digitalizazioa amaitu nahi duen **Gertutik** programaren bidez, zerbitzu hurbilago, eraginkorrago eta azkarragoa emateko, hau da, kalitate handiagokoa.
- Data Lake bat ezartzea herritarrekiko harremanetan. Horri esker, Foru Aldundia esperientzietan oinarritutako eredu batetik informazioaren azterketan oinarritutako erabakiak hartzera igaroko da. Aldaketa hori erabaki zehatzagoak eta modu arinagoan hartzeko aukera ematen duen iraultza bat da, eta herritarrek administrazioarekin duten harremanari dagokionez duten esperientzia hobetzen du.
- **Araba Open Data** indartzea. Arabako datu irekiei merezi duten garrantzia emango zaie dekretu eta atari propio batekin, bere garaian Gobernu Irekiarekin egin zen bezala.
- Datu masiboak, telefonia adimenduneko sistemak eta token ez-suntsigarriak buruzko azterlanak aprobetxatzea aukera berriak ezartzeko hainbat arlotan, hala nola kulturaren (Web3-aren bidez), turismoan (hoteletako eta azoketako simulagailuak), Gizarte Zerbitzuetan (egoitza-plazekin edo etxez etxeko zerbitzuekin lotutako arazoak konpontzea), Ingurumenean eta Nekazaritzan, besteak beste.

5 / Garapen Jasangarrirako Arabako Aliantzari bultzada bat ematea.

- Arabako Foru Aldundiaren politikak Agenda 2030ekin lerrokatzea. Inor atzean ez uzteko maximaren pean, foru-administrazioak GJHen ikuspegia sartuko du jarduera-ildo eta plan estrategiko guztietan, zeharka.
- Toki-erakundearen politikak 2030eko GJHetara zabaltzea. Garapen Jasangarrirako Helburuekiko konpromisoa ekintza, proiektu eta jarduera zehatzen bidez ulertu behar da, **Arabako Aliantzari** ikusgarritasun handiagoa emateko, baina baita eragile berriak erakartzeko ere.



ARABAKO
BATZAR
NAGUSIAK /

Programa

6 / Arraza-aurreiritzien eta -estereotipoen aurkako sentsibilizazioa azpimarratzea eta kulturen arteko bizikidetza hobetzea.

- Udalerri- eta eskualde-mailako koordinazio-mahaietan parte hartzea, sinergiak sortuz eta eragina areagotuz.
- Lurraldean aliantzak ezartzeko eta indartzeko eta kohesioarekin esku hartzeko espazioetan parte hartzea, **Zurumurrueen aurkako Estrategiaren** eragina biderkatzeko eta bizikidetza hobetzeko.
- Prozesuko ikaskuntzak identifikatzea, jardunbide berriak eta egokiak partekatuz.
- Bizikidetza-plazak sortzea (espazio mistoak, belaunaldien artekoak, etab.).
- Maila **orokorrean** kontzientzia sortzen jarraitzea.
- Beste proiektu batzuekiko elkarguneak sortzea eta dagoeneko finkatuta dauden beste espazio batzuekiko harremana sustatzea, aliantzak sor baitaitezke gunehorietatik.
- Sareen eta trukearen ezagutzarako sareen sorrera sustatzea eta dauden hainbat tresna indartzen jarraitzea.

7 / Pertsona zaurgarrien eta diskriminatuengana iristea, giza eskubideak gauzatzen laguntzeko.

- Giza eskubideen, lankidetzaren eta elkartasunaren ikuspegia txertatzea Arabako Foru Aldundiaren politika publikoetan.
- Pertsona zaurgarriari, hala nola hurrei, errefuxiatuei, emakumei eta neskatoei, genero-indarkeriaren aurkako borrokari eta abarri, arreta egonkor eta etengabea ematea ahalbidetuko duten erakundeekin hitzarmenak egitea.
- Arabako Larrialdi Funtza (FAE) indartzea, garapen-bidean dauden herrialdeetan gertatzen diren larrialdi-egoeren aurrean Arabako elkartasuna bideratzeko tresna gisa.
- Ekintza humanitarioak babestea, 2030 Agendaren eta Garapen Jasangarrirako Helburuen arabera.
- Pertsonen eta erakundeen parte-hartzea sustatzea, erakundeen arteko koordinazioa bultzatuz.
- Garapenerako lankidetzaren arloko erakunde arteko foroetan aktiboki parte hartzea.
- Garapenerako lankidetzaren eta elkartasunaren eremuan eragile berriak sar daitezkeen sustatzea.
- Garapenerako Lankidetzaren arloak ezarritako ekintzei dagozkien funts publikoen kudeaketan gardentasuna eta kontu-ematea balioestea.



ARABAKO
BATZAR
NAGUSIAK /

Programa

8/ Memoria historikoaren eta giza eskubideen aldeko ekintzetan sakontzea.

- Martxoaren 3ko Memorialaren proiektua amaitzea.
- Giza eskubideen defentsarako eta bidegabeko indarkeriaren biktima guztiak aitortzeko politika aktiboa garatzea.
- Arabako udalerrri guztietan biktimak aitortzeko ekintzak sustatzea.

9/ Administrazioaren baliabideak optimizatzea.

- Foru plantilla egonkortzea eta enplegu publiko iraunkorra eta kalitatezkoa bermatzea.
- Lan-eskaintza publiko berriak abian jartzea.
- Enplegu publikoaren profil berriak IKTetara egokitzea.
- Arabako Foru Aldundiaren eta lurraldeko udalen arteko datuak elkarreragingarriak izatea, eta administrazioek, lurraldearen barruan, herritarrei ez eskatzea horietako edozeinek duen dokumentazioa aurkeztea. Hau da, lurralde arteko eta lurralde barruko elkarreragingarritasun-programa bat abian jartzea.
- Aurrekontu-informazioa hobetzea. Horretarako, Arabako foru-administrazioa osatzen duten erakundeei eta inbertsioen lurraldeari buruzko informazioa jasotzen duten aurrekontuak egingo dira.
- Ahalik eta administrazio-prozedura gehien sinplifikatzeko eta izapideak eta paperak murrizteko azterlan bat egitea. Herritarren eta Administrazioaren arteko harremana sinplifikatzea. Prozesuak, online izapideak, elkarreragingarritasuna eta kanal anitzeko arreta murriztea.



**ARABAKO
BATZAR
NAGUSIAK /**

Programa



2 /

EKONOMIAREN ETA INDUSTRIAREN ERALDAKETA GIDATZEA.

Araba Euskadiren garapen ekonomikoa sortzen duen eta horretan inplikatzen den lurraldea da. Ekonomia, enpresa, logistika, merkataritza, turismoa, nekazaritza eta abeltzaintzari, eta mahastizaintza eta ardogintzari egindako ekarpenak gure herriaren sendotasuna, lehiakortasuna eta ongizatea lortzen lagundu du.

Eta hori posible izan dadin, balioa ematen zaie munduko punta-puntako herrialdeen arrakasta ekonomikoaren oinarri nagusiei: Arabaren aldeko apustua egiten da, inbertsiorako lurralde egokia den aldetik, enpresa- eta industria-izaera defendatzen da, eta, aldi berean, haren masa soziala eta ekonomikoa indartzen da. Masa horrek konfiantza du Araban garapen ekonomikoaren punta-puntako polotzat, bere alderdi guztietan: batetik, nodo logistiko gisa duen kaudimenagatik; bestetik, mahastizaintza eta ardogintza bikaintasunagatik edo trantsizio energetiko adimendunean sortzen ari den gaitasunagatik.



**ARABAKO
BATZAR
NAGUSIAK /**

Programa

Hazkunderako eta garapenerako esparru hori azken urteotan joera berriak sortu dituzten aldaketetara egokitzen jakin du, eta Araba horietara egokitzen joan da, gobernantza aurreratuaren eskutik.

Pandemiak, hornidurarik ezak eta lehengaien garestitzeak, gatazka belikoeak, krisi ekonomikoak, inflazioak eta, batez ere, energia-krisiak mundua alertan jarri dute, eta, ondorioz, baita Araba ere. Beraz, horiei aurrea hartzea eta egokitzea eta horretarako prestatzea funtsezkoa da etengabe aldatzen ari den gizartearen eskaerei irtenbide eraginkorrak emateko.

EAJ-PNVk etorkizuneko erronkak, epe ertain eta luzera, aukera bihurtzeko gakoak eskaintzen ditu, Arabako ekonomiaren eta industriaren eraldaketaren buru izateko. Gako horiek lortzeko, argi eta garbi apustu egin behar da jasangarritasunaren eta digitalizazioaren printzipioak esparru ekonomiko guztietan martxan jartzearen alde, Araba Euskadiko ekonomia berdearen aitzindari bihurtuz.

Aberastasuna eta enplegua sortzeko, guztiok ekintzaileekin eta enpresa-sarearekin dugun konpromisoa hartu behar dugu. Ildo horretan, Arabako industria funtsezko elementua da: sarea hamarkadatan ehunduta mantentzea, bere produktibitatearen aldeko apustua egiten jarraitzea eta bere sendotasunak eta aukerak indartzea funtsezko elementuak dira Arabako hazkunde ekonomikorako.

Bereziki, Arabako enpresa txiki eta ertainak hazkunde ekonomikoaren ardatz nagusiak dira, Arabako ekonomiari egiten dioten ekarpen garrantzitsuagatik. Administrazioak enpresa txiki eta ertainei laguntzen jarraituko du, enplegua, garapen ekonomiko eta soziala eta aukera-berdintasunari egiten dioten ekarpenaren bidez.

Arabak, Euskadiko industria- eta enpresa-sektorearen funtsezko zati gisa, Europako eskualde aurreratuenen buru izaten jarraitu nahi du. Horretarako, beharrezkoa da berrikuntza, digitalizazioa eta garapen teknologikoa bultzatzeko ahalegina areagotzea, enpresa-sarearen lehiakortasuna sustatzea eta logistikaren alde egiten jarraitzea. Era berean, keinua egin behar zaie industria-gune eta -sektore berriei eta hori bultzatzen duten ekintzaileei, Araba erreferentziazko lurralde izan dadin nazioarteko lehiakortasunaren eta erresilientziaren arloan.

Eta testuinguru horretan, EAJ-PNVk autonomia fiskala hobetzearen alde egiten du, inbertitzaileak erakarri eta enplegua sortuko duten pizgarri fiskalak proposatu eta egokitzearen alde, eta Arabako hazkunde ekonomikoa sustatuko duten zerga-aldaketak planteatzearen alde. Horretan datza Euskal Ekonomia Itunaren apustu adimentsua.



**ARABAKO
BATZAR
NAGUSIAK /**

Programa

Konpromisoak eta ekintzak /

1/ Kalitatezko enpleguaren sorrera sustatzea.

- Enplegu-aukerak sustatzea, Lanbideren lankidetzarekin, langabezia-maila handiena duten Arabako eskualdeetara zuzenduta.
- Gazteen enplegarritasuna sustatzeko plan bat aktibatzea, lehen enplegua lortzen laguntzeko.
- Luzaroko langabeei lan-merkatura itzultzen laguntzea, Lanbiderekin batera egindako enplegu-plan baten bidez. Plan horretan, iraupen luzeko langabeen laneratzea eta autonomoen sustapena jasoko dira.
- Kuadrilla bakoitzean sortutako enplegu-anezkek indartzea.
- Indesa garatzea, lantokiak berregituratuz eta handituz.
- Zerbitzu-kooperatibak bultzatzea, landa-azpiegiturak mantentzeko (landa-bideak, baso-pistak, belar-sastrakak kentzea, ibilguak eta abar): landa-enplegua sortzea, nekazaritza-jardueraren osagarri.
- Arabako Foru Aldundiak udalerrri, herri eta eskualdeetan lanpostuak sortzea bultzatzea, mendiak garbitu eta zaintzeko plan espezifikoaren bidez, bai eta kudeaketa optimizatzeko jardueren bidez ere.
- ETEetan belaunaldien arteko erreleboa sustatzea eta bultzatzea.

2/ Produkzio-sektoreen eraldaketa sustatzea.

- Berrikuntzaren eta produkzio-sektoreen digitalizazioaren alde egitea.
- Ibilgailu elektrikoaren eta konektatuaren automobilgintzarako Ekonomia Berreskuratu eta Eraldatzeko Proiektu Estrategikoa garatzea: Automobilgintzako Fabrikazio Aurreratuko Zentroa eta Basquevolt lantegiari laguntzea.
- Farmazia Terapia Aurreratuen Zentroari laguntzea.
- Robotekin, robotika eta automatizazioko elkarteak, martxan jartzea, talentuaren eskuragarritasuna, tokiko industriaren balio-zerbitzuen gehikuntza eta lehiakortasunerako sustapena ahalbidetuko dituen ekosistema bat sortzeko.
- Araban ikus-entzunezko ekoizpenak eta kultura-korronte berriak sustatzea.
- Araban osasunaren eta kirolaren sektore ekonomikoa sustatzea.
- Audio Glass Hub garatzea, Aiaraldeko Eskualdeko Plan Estrategikoan sartutako ekimena.
- Aiara Industrial Lab garatzea, Aiaraldeko Eskualdeko Plan Estrategikoaren barne.



ARABAKO
BATZAR
NAGUSIAK /

Programa

3/ Arabako berrikuntza-sistema bat sortzea.

- Teknologia- eta zibersegurtasun-zentroei, Energiguneri, CTari eta abarri laguntzea.
- **Vitoria-Gasteizko Mobility Lab** martxan jartzen amaitzea.
- Araban Berrikuntzaren Arkua garatzea (Arabako Parke Teknologikoak osatua), Gamarrako eta Betoñuko industrialdeak berreskuratzea (**Iparraldeko Industria Barrutia**) eta Innovaraba proiektua.
- **Araba Data Hub** sortzea.
- *Reskilling* eta *upskilling* digitaleko jardueren fundazio publiko-pribatua sortzea.

4/ Talentua erakartzea eta ekintzailtza sustatzea.

- Industria babestea, ekintzailtza, talentua eta berrikuntza sustatuko dituen **Sustaberri** programaren bidez, kalitatezko enplegua sendotzeko.
- Araban ekintzailtza bultzatzea. Horretarako, enpresa berriak hedatzeko azeleragailuekin akordioak egingo dira et, **Araba Venture** ibilgailua sortuko da, besteak beste.
- Elkargirekin akordioak sustatzea, enpresa teknologikoei eta enpresa berriei abalak emateko formulen bidez.
- Lurraldeko enpresa traktoreei lotutako hornitzaile teknologikoen kateak eta enpresa berriak sortzea.
- **Araba Talent** programa handitzea, ikerketa- eta bikaintasun-bekekin.
- Talentuaren *softlanding* agentzia bat sortzea, kanpotik datozen pertsonei laguntzeko.
- Talentu-etxe bat garatzea Gasteizen, prezio lehiakorrekin, dauden etxebizitza-arazoen aurrean.
- Arabatik nomada digitalen etorrera sustatzea: Munduko edozein lekutan lan egitea, baina Arabatik.
- LHko prestakuntza eta prestakuntza duala babestea.
- Araban sektore eta jarduera estrategikoei lotutako fakultate eta prestakuntza-zentro berriak erakartzea (enologia, logistika, bideo-jokoak, etab.)
- Aiaraldea hizkuntzak trebatzeko zentro bat sortzea. Aiaraldeko Eskualdeko Plan Estrategikoa.

5/ Lurraldea lehen mailako logistika-nodo gisa indartzen jarraitzea.

- Gasteizko nodo logistikoa sustatzea.
- I+G arloko logistika aurreratuko zentroak garatzea, lurraldeko ardatz logistiko nagusien inguruan (Aireportua-Jundiz-Arasur).
- «Itsasoko eta lurreko autobidea» deritzona sortzea, operadore handiak erakartzeko.



ARABAKO
BATZAR
NAGUSIAK /

Programa

- Zona frankoa martxan jartzea.
- Gasteizko aireportua indartzen jarraitzea. Horretarako, alde batetik, aireontziak aparkatzeko plataforma zabalduko da, jarduera industrial eta karga-jarduera areagotzeko; eta, bestetik, bidaiarien hegaldi erregularrei laguntzen jarraituko da, ibilbide luzeko hegaldien (kontinente artekoak) bideragarritasunaren azterketa barne.
- Gasteizko plataforma intermodal logistikoa babestea.
- Abiadura Handiko Trenaren obrak dinamizatzeko kudeaketak egiten jarraitzea.
- Gasteizko aireportuaren inguruan aireontziak mantentzeko eta konpontzeko proiektuak bultzatzea eta babestea.
- AP-1 eta N-1 ahalmen handiko bideak lotzea, Arabaren posizio logistikoa indartzeko eta bide-segurtasuna areagotzeko.

6 / Gune eta industrialde berriak prestatzea.

- Gasteizko Iparraldeko Industrialdea garatzea, Eusko Jaurlaritzarekin eta Gasteizko Udalarekin lankidetzan.
- Gasteiz inguruan tamaina ertain eta handiko jarduerak egiteko azalaren erosketa eta garapena sustatzea.
- Poligono eta ekipamendu berrien garapena sustatzea Aiaraldean, Arabako Errioxan eta jarduera berriak garatzeko edo daudenak egokitzeko espazioen urritasuna ikusten den beste eremu batzuetan.
- Jarduera ekonomikoak instalatzeko erabiltzen ez diren espazioak berreskuratzeari lehentasuna ematea.
- Enpresa-proiektu berriei ongietorria egiteko plan integrala garatzea.
- Enpresa berriei eta teknologikoei alokairu biguna emateko guneak ezartzea Gasteizen.
- Dauden industrialdeak hobetzea eta egokitzea.

7 / Fiskalitatea berrikustea, iruzurraren aurka borrokatzea eta Foru Ogasuna modernizatzea.

- Foru-ogasunari baliabide teknologiko eta material gehiago ematea iruzur fiskalaren aurkako borrokan aurrera egiten jarraitzeko, Ticket Bai eta Berehalako Informazio Hornidura ezarri ondoren.
- PFEZn eta Sozietateen gaineko Zergan egindako erreformak ebaluatzea eta horien egokitzapena aztertzea, zerga-oinarriak zabaltzeko eta hazkunde ekonomikoa sustatzeko, hori baita enpleguaren benetako palanka.
- Gehikortasunean, eraginkortasunean eta lehiakortasunean oinarritutako erreforma fiskala garatzea.
- Lurraldeko premien arabera fiskalitatea aktibatzea, talentua, ekintzailtza eta berrikuntza atxiki, erakarri eta sustatzera bideratutako zerga-aldaketen eskutik, proiektu estrategikoetan inbertsioak egiteaz gain.



ARABAKO
BATZAR
NAGUSIAK /

Programa

- Fiskalitate berdea bultzatzen jarraitzea, ingurumena, trantsizio energetikoa eta ekonomia berde berria hobetzen lagunduko duten neurriak har daitezen zerga-pizgarrien bidez.
- Digitalizazioa eta datuen tratamendua bezalako neurrietan aurrera egitea, zergadunari bere zerga-betebeharrak betetzen laguntzeko.
- Unitate informatiko fiskal bat sortzea zergadunaren kudeaketa integralerako.
- Foru-ogasunean kudeaketa integraleko sistema bat ezartzea, aitortpenetan oinarritutako ogasun batetik datuetan oinarritutako ogasun askoz modernoago batera igarotzeko. Zergadunaren ikuspegi bakarra, zerga-betebeharraren ikuspegi finkatuarekin, diru-sarrera gehigarriak ekarriko dituen eta borondatezko betetzea hobetuko duena.
- Zerga arloan neurriak bultzatzea, erronka demografikotik eratorritako gaiei aurre egiteko.
- Katastroaren eta Jabetza-erregistroaren arteko informazio-trukea hobetzea, bai eta zergadunentzako zerbitzua ere, eta katastro-balioak eguneratzea, foru-araudiaren arabera.

8/ Aurrekontu-, finantza- eta ondare-kudeaketa hobetzea.

- 2030eko Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat datozen aurrekontuak egitea.
- Zor biziaren jasangarritasuna bermatzea.
- Europako finantzaketa (Europako Eskualde Garapenerako Funtsa, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa eta Europako Gizarte Funtsa) lortzea optimizatzea, Arabako proiektu eragile eta eraldatzaile nagusiek behar dituzten baliabideak osatzeko.
- Lurraldearen mendeko erakundeetan jasangarritasunari buruzko urteko txostenak ezartzea, haien ekintzen ingurumen, gizarte eta gobernantza arloko inpaktu, arrisku eta aukerei buruz informatzeko.

9/ Tokiko merkataritza eta kontsumoa indartzea

- Merkataritzaren egoeraren diagnostiko integrala eta merkataritza-jarduera sustatzeko plan estrategikoa egitea.
- Saltoki txikien digitalizazioa bultzatzea, plataformetan sartzeko eta kontsumo-ohitura berrietara egokitzeko.
- Tokiko ekoizleen eta merkatarien arteko lotura sustatzea, 0 kilometroko ekosistema ahalbidetzeko.
- Merkataritzaren eremuan ekintzailtzari laguntzeko neurri espezifikoak hartzea.
- Merkatuak abiaraztea eta bultzatzea urtaroen arabera eta produktuen arabera, merkatarien elkarrekin eta udalekin lankidetzan.
- Saltokientzako eta ostalaritzarentzako laguntzak indartzea, merkataritza- eta ostalaritza-establezimenduak modernizatzeko eta sustapen-kanpainak egiteko.



**ARABAKO
BATZAR
NAGUSIAK /**

Programa

- Tokiko elikagaien kontsumoa sustatzeko kanpainak garatzea.
- Tokiko merkatu eta azoketan nekazaritza- eta elikagaigintza-produktuak ekoizten, egiten eta merkaturatzen dituzten pertsonen errolda arautuko duen Foru Dekretua onartzea.
- Hurbiltasuneko zirkuitu komertzialak sustatzea Arabako elikagaientzat.
- Ekoizpen ekologikoko kooperatiba merkaturatzaile baten eraketa bultzatzea.

10 / Araban turismoa sustatzea.

- Lurraldearen irudia sustatzeko lana egitea, nazioarteko ekitaldien bidez.
- Turismo berdea eta parke naturalak sustatzea, uste osoa baitugu goranzko joera turistikoko elementuetan eratzen direla biak.
- Araba turismo irisgarriaren erreferentzia bihurtzea.
- Kexaako Multzo Monumentalari balioa ematea. Aiaraldeko eskualdeko plan estrategikoa.
- Mendialdea eskualdean turismo industrial eta immaterialaren alde egitea.
- Lurraldeko eskaintza publikoaren osagarri diren museo-proiektu pribatu traktoreak babestea.
- Enoturismoaren inguruko ekimenak indartzea Arabako Errioxan eta Aiaraldean.



ARABAKO
BATZAR
NAGUSIAK /

Programa



3 /

ZAINZA-POLITIKETAN ETA GIZARTE-KOHESIOAN AURRERA EGITEA.

Arabak kohesio maila handia duen lurraldea izan nahi du. Enpleguaren eta giza garapenaren mailak egoera onean jartzen gaitu desberdintasunen aurkako borrokan eta gizarte-kohesioan aurrera egiteko. Orain arte, EAJ-PNVk zuzentzen dituen erakundeen lehentasunak arabarren eskaera eta behar sozialei erantzuteak markatu ditu. Gure lurraldeak kalitatezko gizarte-politikan erreferente izaten jarraitu behar du.

Euskadik oro har eta Arabak bereziki aparteko erronka bati egin behar diote aurre: munduko lurralderik zaharrenetakoa izatea. Hemendik 2050era piramide demografikoaren zahartze handiak erronka sozial garrantzitsuak sortuko ditu. Zaintzen trantsizioak aurre egin beharko dio zahartutako biztanleriaren konfigurazio soziodemografiko berri horri, sistemaren jasangarritasunaren ikuspegitik.



**ARABAKO
BATZAR
NAGUSIAK /**

Programa

Biztanleriaren iraupen luzeko zaintza-beharrak izugarri haziko dira datozen hiru hamarkadetan, bereziki mendekotasunarekin lotutakoak. Era berean, desgaitasun intelektuala duten edo adin handiagotara iristen diren osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonen gorakadaren ondoriozko egoera sortu berriak saihestu eta detektatu beharko ditugu.

Pertsonak ahalik eta denbora gehien beren etxean, ahalik eta modu autonomoenean bizitzea da gure erronka. Etxeko zainketak bultzatuko ditugu teknologia berriei esker, eta egoitza-zainketei gure babesa emango diegu, gero eta etxeko antzekoagoak diren zentro berritueta, erabiltzaileen, familien eta profesionalen arteko loturak sendotuko dituen arretarekin. Eta egoitzetako plaza publikoen kopurua handitzen jarraituko dugu, desgaitasuna duten pertsonentzako zentro berrien sustapena barne.

EAJ-PNVk hamarkadak daramatza emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunekin amaitzeko lanean. Gizarteak urrats sendoak ematen jarraitu behar du berdintasun eraginkorraren aldeko kontzientzia hartzeko eta lankidetzan aritzeko. Datozen lau urteetako gakoetako bat begirada feminista bere esparru guztietan zeharka ezartzea eta txertatzea izango da, ez soilik politikan, baita gizartearen ere. Horregatik, EAJ-PNVk lanean jarraituko du, Berdintasunerako V. Foru Planak ezarritako ildoak jarraituz.

Erronkak gizarte-zerbitzuak egokitzeko premiaren aurrean jartzen gaitu, egoera bereziki ahulean dauden beste kolektibo batzuei arreta, babes eta zaintza handiagoa eskain diezaieten, hala nola indarkeriaren biktima diren emakumeei, harrera eta tutoretza behar duten adingabeei eta gizarte-bazterkerian dauden pertsonari.

Arabako gizarte bateratzen duen beste elementu bat kultura da. Horretarako, lurralde-ikuspegia duten ekipamenduak eta ekitaldiak sustatzen dira, baita kultura-industria berriak, Gasteizko Diseinuko Goi Mailako Arte Eskolaren indartzea eta KulturAraba Plan berri baten diseinua ere. Arabako kirolari ematen zaion babesa gure proiektuaren ikur eta santu izaten jarraituko du, kirol-ekitaldiak eta oso maila handiko taldeak babestuz. Ez da ahaztu behar gazteria dela Arabako gizartearen etorkizuna; beraz, sinergiak bilatuko ditugu zeharkako ikuspegia duten gazte-eragileekin, eta kolektibo horren presentzia bultzatuko dugu Foru Aldundiaren politika eta foroetan.

Euskara da EAJ-PNVk Arabaren aurrerabideari laguntzen jarraitu nahi dion bideetako bat. Gure hizkuntzak Araban izan duen hazkunde esponentziala lurraldeko hainbat eragilek, besteak beste, gure udalek, kuadrillek, Batzar Nagusiek eta Foru Aldundiak berak kalitatezko hizkuntza-kudeaketaren alde egindako ekarpena da. Euskara gizarte-kohesiorako eta arabarra bezalako gizarte eleanitz batean integratzeko tresna izan zen, izan da eta izaten jarraitzen du. EAJk lanean jarraituko du arabarrek beren hizkuntza aukera oztoporik gabe erabili ahal izan dezaten, berdintasunez eta eraginkortasunez.



**ARABAKO
BATZAR
NAGUSIAK /**

Programa

Konpromisoak eta ekintzak /

1/ **Bazterketa-arriskuaren eta desberdintasunaren aurkako borrokan aurrera egitea.**

- Gizarte-babeseko sistema indartzea, desberdintasunaren aurka borrokatzeko tresna gisa.
- Araba munduan desberdintasun gutxien duten eskualdeen artean kokatzeko estrategia diseinatzea.
- Eguneko Arretarako Zentro bat sortzea, gizarte-bazterkerian dauden pertsonen oinarritzko arreta-premien estaldura izan dezaten.
- Gizarte-bazterkerian dauden pertsonentzako gaueko harrera-zentro bat abian jartzea.
- Gizarteratzeko ibilbideak sustatzea, Lanbiderekin eta beste erakunde publiko batzuekin lankidetzan.

2/ **Gizarte-zerbitzuak Araban hedatzea.**

- Erreferentziazko lurralde-zentro bat sortzea **Etxean Bai** programarako, adinekoak eta desgaitasuna dutenak etxean eta ingurune naturalean mantentzen laguntzeko, teknologia berrien laguntzarekin eta aplikazio eta sentsoreen bidezko jarraipen aktiboarekin.
- **Gizarea** programa orokortzea, erabiltzaileen, familien eta profesionalen arteko lotura indartzen duen arreta-eredu berritzailea, bai zainketa-zentroetan, bai etxeetan.
- Gizarte-zerbitzuen foru-zentro eta -zerbitzuetan eta lurraldeko zentro pribatu guztietan kalitate-adierazleak garatzea, etengabeko hobekuntzarako tresna gisa.
- Landa-inguruneko tokiko zaintza-ekosistemak abian jartzea, etxean bizi diren ahultasun- eta mendekotasun-egoeran dauden adinekoen arreta hobetzeko. Horretarako, zerbitzu publiko, sozial eta sanitarioak, ekimen komunitarioak eta irtenbide pribatuak koordinatuko dira.
- Mendekotasuneko prestazio ekonomikoen zenbatekoak hobetzea, gero eta zaharragoak diren arreta-premia handiagoa duten biztanleei zainketak errazteko, zainketen sektorean enplegarritasuna sustatuz.
- Prestazio ekonomiko berri bat sortzea, bakarrik bizi edo beren familia-unitatea osatu nahi duten desgaitasunen bat duten pertsonen bizimodu independentea errazteko. Hori guztia lortzeko laguntza pertsonala kontratatuko da.
- **Bizitza Independentearen Bulegoa** sortzea, desgaitasunaren arloko hirugarren sektore sozialeko erakundeek kudeatuko dutena.
- Gizarte-ekimeneko kooperatiben sorrera bultzatzea, lurraldean baliabide eta gizarte-zerbitzu berriak sortzeko eredu misto publiko-sozialen alde egiten jarraitzeko.



**ARABAKO
BATZAR
NAGUSIAK /**

Programa

3/ **Gizarte-zerbitzuak berritzea eta ikertzea.**

- Ikerketa, berrikuntza teknologiko eta produktu eta zerbitzu espezifiko berriekin esperimintatzeko zentro aitzindari bat sortzea, desgaitasun intelektualarekin eta garapen-nahasmenduekin zahartzen diren biztanleei laguntzeko bereziki pentsatua.
- Teknologia aurreratu berriak aplikatzea arretan. Horren barruan, adimen artifizialeko proiektuak eta elektroentzefalografiako seinaleetatik abiatuta mina detektatzeko proiektuak sartuko dira, eta murgiltze-errealitatearen onura terapeutikoen alde egingo da.
- Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko arlo eta zentro guztietan ikerketa sustatzea, zainketen berrikuntzaren eragile gisa. Bultzada hori hainbat proiekturen bidez gauzatu da, hala nola eguneko arretarako landa-zentroetan hauskortasuna detektatzea.

4/ **Mendekotasuna duten pertsonentzako egoitza-plazen kopurua handitzea.**

- Zaintza-zentro berritzaile eta inklusibo berria abian jartzea Gasteizen, Salburuan, mendekotasuna duten adinekoentzat, batez ere narriadura kognitiboa dutenentzat, non bizitza- eta egonaldi-espazioaren kontzeptuaren alde egingo den, etxearen ideiarekin eta zainketa integratuekin bat etorritik.
- Mendekotasuna duten adinekoentzat itundutako egoitza-plazak handitzea, baliabide-eskaerari erantzuteko, adinekoek beren etxeetan geratu ezin dutenerako edo geratu nahi ez dutenerako.
- Desgaitasun intelektualak duten pertsonentzako egoitza-zentro eta eguneko zentro bana sortzea Arratzua-Ubarrundian eta Laudion, kolektibo horren baliabide-eskaerari erantzuteko.
- Gasteizen, Zabalganan, autismoaren nahasmenduak dituzten pertsonentzako bigarren eguneko zentroa zabaltzea, 20 pertsonentzako edukierarekin.

5/ **Gizarte-zerbitzuen kalitatea hobetzea.**

- Samaniegoko foru-egoitza modu integralean eraberritzea, bai eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen beste egoitza-zentro batzuk, hala nola Armuruko San Anton (Amurrio), Etxebidea, Goizalde, Ajuria edo Txagorritxu eraberritzeko jarduketak osatzea ere, hurbilagoak eta erosoagoak izan daitezzen eta bertan bizi diren pertsonen etxe baten antz handiagoa izan dezaten.
